



IRUTXULOKO HITZA

2025

Euskararen Eguna

DONOSTIAN



Euskara eroso bizitzeko

aek

euskara praktikoa



DONOSTIA

ANTIGUAKO AEK

Erregezain, 22

943-21 80 88 · antigua@aek.eus

AMARA BERRI AEK

Ordoñez, 7 (ARCCO parean)

943-47 45 92 · amara@aek.eus

GROSEKO IRRINTZI AEK

Iztueta, 3, behea

943-32 76 11 · gros@aek.eus



ILAZKI

EUSKALTEGIA

Zabaldu zure
mundua

HABEk diruz lagundua

HABE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

Euskara, etorkizuna eraikitzeko

Etorkizun ezaren ezkortasuna gailentzen ari den garaiotan, etorkizun hobe baten itxaropena ezinbestekoa dugu aurrera egiteko. Batzen gaituzten gauzetatik baino ezin-go dugu itxaropen hori eraiki, ordea, eta zerk batzen gaitu euskaldunok euskarak baino gehiago?

Etorkizun hobe horretan Euskal Herririk eta Donostiarik irudikatzen badugu, euskaratik eraiki beharko dugu itxaropena; Euskal Herria Euskararen Herria bada, ez dagoelako Euskal Herririk euskararik gabe, eta Donostia Euskararen Hiria bada, ez dagoelako Donostiarik euskararik gabe.

Pasatu da, bai, euskararen aldeko borroka biziaren eta euskalduntze prozesuaren garaia, baina ez dira bukatu ez bata eta ez bestea. Eta hamaika dira, gaur egun ere, euskarak dituen erronkak, oldarraldi judizialek hasita eta askoz harago joanda. Batzuek euskara oztopo edo muga gisa ikusten eta irudikatzen duten arren, beste askok argi dugu desberdinon arteko zubiak eraikitzeko eta herri oso bat saretzeko tresna aparta dela.

Bizi dezagun Euskararen Eguna jai edo aldarrikapen giroan. Baina, batez ere, eraiki ditzagun, egunero-egunero, Euskararen Hiria eta Euskararen Herria euskaratik, indartu dezagun euskararen aldeko borroka eta ardaztu ditzagun gainerako borroka guztiak euskaratik. Denon eta denontzako hizkuntza izaten jarraitu behar du euskarak; herria egiteko, borrokarako, jairako, harremanetarako eta plazererako.

Donostia Euskararen Hiria izan dadin, gure aletxoa jartzen ahalegindu gara IRUTXULO KO HITZAN azken hogeitun urteotan, aurretik *Irutxulo* astekariak egin zuen moduan. Eta, zure babesarekin, horretan jarraituko dugu, egunero-egunero. Etorkizun hobe bat eraikitzen, txikitik eragiten, Donostia asko sartzen diren Donostiaren berri ematen eta tokikotik mundu osoa kontatzen. Euskaraz.



 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

Argitalpen data: 2025eko azaroa

Lege Gordailua: SS-226-05

Testuak: Erredakzioa

Argazkiak: Erredakzioa

Diseinua: Oier Arribas Ciria

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio
aizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

Irutxulo
.hitza
.eus



«Nire helburua da Donostiak bere euskarazko izaera modu eraginkorrean garatzea»

KERMAN ORBEGOZO

Donostiako Udaleko Euskara zinegotzia

Jon Insausti izan da azken urteotan Donostiako Euskara zinegotzia, baina alkate kargua hartu duenetik, Kerman Orbegozo Uribe jeltzaleak (Donostia, 1978) hartu du kargu hori. Euskarak Donostian eta Euskal Herri osoan erronka handiak dituenaren jakitun, gogoz agertu da horiei aurre egiteko.

✍ Beñat Parra Rodriguez
📷 Donostiako Udala

Hartu berri duzu Donostiako Euskara zinegotzi kargua.

Zeintzuk izan dira kargu horretan egunotan hartutako lehenengo erabakiak edo, oro har, egindako lehenengo gauzak?

Lehen aste hauetan, bi helburu nagusi izan ditut: batetik, Euskararen Plan Orokor berria garatzeko martxan jarritako diagnostiko prozesuaren nondik norakoak sakon ezagutzea eta, bestetik, Euskara Zerbitzuaren jardura esparrua eta taldea hobeto ezagutzea. Hartara, Euskara Zerbitzuko taldeko arduradunekin lehen bilerak egin ditut. Aldi berean, arreta berezia jarri nahi diot herritarrengandik hurbil egoteari eta auzoetako batzordeekin harremana sendotzeari, hemendik aurrera euskararen normalizazioan izango duten rola indartzeko. Erabaki zehatzik hartzeko goiz da, baina ardurak eta lehenetsunak kokatzen hasi nahiko nuke lehenbailehen.

Zer harreman zenuen aurretik euskararekin?

Euskara beti egon da presente nire bizitza pertsonalean eta publikoan. Ama hizkuntza euskara izan dugu etxean eta horrek eragin zuzena izan du nire nortasunean eta konpromisoan. Nire jardun publikoan ere, beti saiatu izan naiz euskararen erabilerrari lehenetsuna ematen eta eredugarri izaten. Orain, Euskara zinegotzi gisa, ardura hori are handiagoa da, eta eguneroko jardunean euskararekiko konpromisoa modu eraginkorrean gauzatzea da nire helburuetako bat.

Nola bizi duzu Euskararen Eguna



ZUHAIZTI
Eskola Publikoa

zuhaiztilhi.hezkuntza.net
012202aa@hezkuntza.net
943-89 9175



«Gaitasuna hobetzeko, erabilera ahalbidetu eta bermatuko duten esparruak ezinbestekoak dira»

pertsonalki eta udaleko zinegotzi gisa?

Pertsonalki, euskararekiko atxiki-menduaren eta komunitate baten parte izatearen adierazpen gisa. Urte osoan euskararen alde lan egiten duten pertsonak eta taldeak ikusarazteko eguna da niretzat, eta, aldi berean, motibazioa eta indarra ematen dit aurrera begira. Udaleko zinegotzi gisa, ordea, ardura handiagoz bizi dut: herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeaz gain, euskararen erabilerarako baldintzak sortzea eta politika publiko eraginkorrak bultzatzea dagokit. Bi ikuspegi horiek uztartzea da nire erronka: konpromiso pertsonaletik, ardura instituzionalerantz.

Zer prestatu duzue aurtengo Euskararen Egunaren harira?

Euskara Zerbitzuak urteak daromatza auzoetako euskara batzordeekin, Bagera elkartearekin eta beste zenbait udal atalekin —Partaidetza, Gazteria, Donostia Kultura eta abarrekin— elkarlanean Euskararen Eguna antolatzen. Aurten, elkarlan horri esker, hamabi auzotan Euskararen Eguna ospatzeko egitarauak prestatu dituzte. Guztira, ehun jarduera inguru izango dira han eta hemen antolatuko direnak.



2024ko Euskararen Eguneko mintzodromo bat. INAXIO ESNAOLA


Abenduaren 3an, bestalde, Akelarre dantza talde historikoaren dokumentala eskaini eta mahai ingurua antolatuko dugu Antzoki Zaharrean. Akelarrek lan handia egin zuen urtetan euskara eta euskarazko musika sustatzen plazaz plaza, eta dokumental hori Donostian eskaintzea erabaki dugu taldeak egindako lana aitortzeko.

Gaztetzat, bestalde, hainbat jarduera egingo ditugu Euskararen Egunaren harira, abenduan zehar: Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia EHUn, Euskara Batzordeen Topaketa Tabakaleran eta Gazteak Antzerkira egitasmoa Antzoki Zaharrean. Hiru ekimen hauetan Donostiako ikastetxeetako DBH, Batxilergo eta zikloetako 2.800 ikaslek inguruk parte hartuko dute.

Donostiako Euskararen Plan Orokorra berritzen ari zarete. Zer aurreratu daiteke etorkizuneko planaz?

2024ko udazkenean, Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020-2024 indarraldia amaitu aurretik, Euskara Zerbitzuan planaren balorazioa egin genuen eta, horrekin batera, egun Donostiak duen egoera soziolinguistikoa aztertzeari ekin genion. Gauzak horrela, hainbat bide jorratu ditugu diagnostiko osatu bat izateko. Alde batetik, Donostiako datu demo-linguistikoen bilakaeraren prospekzio ikerketa egin dugu eta, bestetik, Donostiako euskararen egoeraren etorkizunari buruzko hausnarketa prozesu bat bideratu dugu 2025eko urtariletik uztaila bitartean, Donostiako gizarte eragile, udal teknikari eta zenbait aditurekin. Hamar urterako ikuspegi ari gara irudikatzen eta Eusko Jaurlaritzak 2024an onartutako AROA marko estrategikoa hartu dugu oinarri.

Euskaldunen hizkuntza gaitasuna hobetzea eta transmi-



LARRE-GAIN
Tolare-Sagardotegia

☎ 943-55 58 46
616-28 78 67

LARRE-GAIN BASERRIA
EREÑOTZU
HERNANI

Abenduaren 1ean
hasiko gara
erreserbak hartzen



sioan indarra jartzea, ulermena orokortzen joatea, etorri berriak hizkuntza politikaren erdigunera ekartzea eta erabilera esparruak, batik bat arnasgune funtzionalak eraikitzen joatea dira, besteak beste, erronka nagusiak.

Donostia Euskararen Hiria dela esan ohi da, baina aurrera begirako euskararen inguruko ikerketak ez dira oso baikorrak. Zer behar da Donostian benetan Euskararen Hiria izan dadin?

Donostia ez da hiri isolatu bat, eta bai Euskal Herrian bai munduan gizartean ematen ari diren aldaketak eta joerak hemen ere gertatzen ari dira, globalizazioaren eraginez: migrazio fluxu etengabeak, digitalizazioaren eta adimen artifizialaren garapenak duen eragina eta abar.

Hori horrela izanik ere, Donostiak badu bere erantzukizuna euskararen indarberritze prozesuan. Uste dut badagokiola gai askotan traktore lana egitea, bera baita hiribururik euskaldunena, Gipuzkoari, lurralde euskaldunena izanik, dagokion bezalaxe. Beraz, aurretik aipatu dudan moduan ulermena orokortzen joatea oso garrantzitsua izango da eta horretarako euskaratik urrun daudenak erakartzen asmatu beharra dugu eta, aldi berean, euskal hiztun komunitate sendo eta ahaldundu bat behar dugu.

Euskararen erabilera, gaitasuna, euskararekiko konpromisoa... zertan ari zarete jartzen fokua udaletik?

Azken hamarkadetako ustea izan

da erabileran gurela hutsunea. Hezkuntza sistemaren bitartez gero eta herritar euskaldun gehiago lortzen ari gara, ordea, baina erabileran ez dugu aurrera egiten. Baina nolakoa da euskaldun hauen gaitasun maila? Hori da Iñaki Iurrebaso soziolinguistak mahai gainean jarri duena eta uste dut oso inportantea dela hor fokua jartzea. Izan ere, gaztelaniaz hobeto moldatzen diren euskal hiztunak baldin badauzkagu, nekez egingo dugu aurrera erabileran. Aldi berean, hizkuntza gaitasuna hobetzeko, erabilera ahalbidetu eta bermatuko duten esparruak izatea ezinbestekoa da.



«Garrantzitsua da auzia gizarteratzea, euskara guztion eskubidea dela nabarmenduz»

Une honetan, Donostiako Udala izan daiteke euskara erabiltzeko esparru edo espazio horietako bat: azken urteotan bai langileen bai ordezkari politikoen hizkuntza gaitasuna asko hobetu da eta udalaren barne jarduera eta komunikazioetan euskara normaltasunez, gero eta gehiago, erabiltzen dela ikusten ari gara. Nire ardurapeko bi zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasuna eta Euskara Zerbitzua, esaterako, euskarazko atalak dira; nagusiki euskaraz lan egiten duten atalak

dira eta irradiazio lana egiten dute udaleko gainerako departamentuetan euskararen erabilera zabaltzeko.

Era berean, donostiarren artean euskararen ulermen gaitasuna zabaltzen edo orokortzen joatea ere ezinbestekoa da erabilerarako baldintzak ugaritu daitezen.

Euskararen erabilerari dagokionez, desoreka nabarmenak daude Donostiako auzo batzuetatik beste batzuetara. Zer egiten ari zarete horri buelta emateko?

Egoera soziolinguistikoa ez da bera Añorgan edo Antiguan eta Ekialdeko Barrutia osatzen duten auzoetan, esate baterako. Baina ez erabileran, ezta ezagutzen ere. Orain lantzen ari garen Euskararen Plan Orokorrean hori oso barneratuta dago eta argi daukagu neurri eta lan ildo desberdinak beharko direla auzo batzuetarako eta besteetarako.

Aipatu planaren berariazko lanketa egiten ari gara Ekialdeko Barrutiko eragileekin eta hortik aterako dira zenbait ekintza berezitu. Aldi berean, oso garrantzitsua da ezagutza eta erabilera handiagoa duten eremu horiek babestea euskararen biziberritze prozesuan funtsezkoak direlako.

Gipuzkoako ariguneetako bat Donostian dago: Añorga. Nola baloratzen duzu hori?

Proiektu pilotu honek zein emaitza izango duen ikusteko denbora beharko da, baina azpimarratzekoa iruditzen zait añorgatarrak erakusten ari diren jarrera eta inplikazio maila.



Euskararekin bat!

Arostegi Kalea, 10, 20009 Donostia. 943-31 60 66



Txalotzekoa da. Ekimen honek hizkuntza ohiturak eraldatu eta komunitatearen parte hartzea sustatu nahi ditu eta, batik bat, herri-tarren arteko euskararen ulermena zabalduz, euskararen erabilera areagotzea eta indartzea du helburu. Añorga da Donostian, Igeldo eta Zubietarekin batera, euskararen ezagutza handienetakoa duen auzoa, baina arreta gehien ematen duena erabilera da. Izan ere, kale erabileraren neurketetatik jaso izan diren erabilera datuak altuak dira. Horrek euskararen aldeko kontzientzia eta jarrera badagoela erakusten du, euskaraz bizitzeko nahi bat badagoela, alegia.

Oldarraldia da azkenaldian euskarak eduki duen mehatxu mediatikoenetako bat. Nola egin aurre euskaldunen hizkuntz eskubideen aurkako oldarraldi judizialari?

Indarrean dagoen araudiaren babesean eta gizartearen gehien-goaren onespenezekin, euskararen normalizazio prozesuan aurrera egiteko urrats garrantzitsuak egin

dira azken 30 urteotan, hala nola, hezkuntzan eta administrazioan. Tamalez, azkenaldian, epaitegietatik datozkigun epaiek eta presio mediatikoak orain artean lortutakoa kolokan jartzen ari dira, eta, horri aurre egiteko, beharrezkoa da euskara eskubide demokratiko eta kolektibo gisa kokatzea, eta oinarri juridiko sendo eta adostu bat lantzea.

Era berean, garrantzitsua da auzia gizarteratzea, euskara guztion eskubidea eta guztiok babestu beharrezkoa dela nabarmenduz; izan ere, ez dugu ahaztu behar gizartearen gehiengoa euskararen erabilera sustatzearen alde dagoela eta euskarak, bizirik irauteko, lur hau baino ez duela, Euskal Herria. Beraz, administrazioaren ardura ere bada herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeaz harago, euskararen biziberritzearen aldeko neurriak hartzea eta politika publikoak garatzea.

Zer erronka jarri dizkiozu zeure buruari Donostiako Euskara zinegotzi gisa legealdia bukatu bitarte?

Neure buruari jarri diodan erronka nagusia da Donostiako euskararen biziberritze prozesuan jauzi kualitatiboa ematea, bai udal barruan, bai hirian bertan. Horretarako, hiru norabide zehatz ditut buruan. Lehenik, Donostiako Euskararen Plan Orokor berria diseinatu eta ezartzea, ikuspegi estrategiko eta parte hartzailearekin, eta arnasgune funtzionalen sarea indartuz, auzoetako ezberdintasun soziolinguistikoko kontuan hartuta. Bigarrenik, udalaren barne funtzionamenduan euskara lehenesten jarraitzea, udalak eredugarri izan behar du herritarren aurrean. Eta, hirugarrenik, herritarren artean euskararen ulermena eta erabilera sustatzeko espazioak sortzea, batez ere gazteekin, etorri berriekin eta euskaldun pasiboekin lan eginez, euskararekiko atxikimendua eta aukera berdintasuna bultzatzeko. Azken finean, nire helburua da Donostiak bere euskarazko izaera modu eraginkorrean eta ekitatiboan garatzea, eta udalak horretan aktiboki gidaritzea partekatua izatea. ●

Euskaraz bizi!

Oiartzun



● Gozotegia: Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07
 ● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com

OLIYOS

TABERNA JATETXEA

Gora euskara!

Erregezaintza, 4, Donostia, Tel.: 943-21 49 89





«Euskararen egoera ikusita, eguna aldarrikatu behar dugu oraindik ere»

AITZIBER OTEGI ITURRIZA

Parte Zaharreko euskara batzordeko kidea

📍 Garazi Etxaniz Idarreta

Nola bizi duzue auzoan Euskararen Eguna?

Garrantzi handia ematen diogu Euskararen Egunaren inguruan egiten dugun programazioari; Bagera elkartearekin eta udal zerbitzuekin elkartu eta saiatzeko gara jarduerak kalera ateratzen, jendeak jakin dezan Euskararen Egunaren harira egindako egitaraua dela. Ez da soilik egunean bertan jendeak parte hartzeko, baizik eta orokorrean euskararen mundura hurbiltzeko.

Zer botatzen duzu faltan Euskararen Egunean? Zer gustatzen zaizu gehien?

Badirudi euskararen inguruan lan edo bizi garen jendearentzako

eguna dela, eta iruditzen zait jende askorentzat egun normal bat besterik ez dela, ez duela garrantzirik. Euskararen egoera ikusita, eguna aldarrikatu behar dugu oraindik ere, eta ez dakit nola egin dezakegun indar gehiago emateko. Bestetik, irakaslea naizenez, oso gustuko dut ikasleekin auzoan ekintza desberdinak egitea, eta sortzen den giro hori.

Zein egoeratan ikusten duzu euskara auzoan?

Parte Zaharra nahiko auzo berezia da, azken urteetan bilakaera handia jasan du. Nahiko tristea iruditzen zait egoera, kanpoko jendearentzat egiten direlako gauzak. Euskararen presentzia gero eta txikiagoa

da, euskaraz artatzeko gaitasuna dutenak gero eta gutxiago dira, eta komertzioetan ere ikus daiteke gero eta gutxiago direla euskal izena dutenak. Bizilagunon artean saiatzeko gara euskarari garrantzia ematen, baina gure kultura eta hizkuntza txoko batean geratzen ari dira. Kaleko hizkuntzan ere hori oso nabaria da.

Auzoko belaunaldi gazteek eta helduek berdin bizi dute euskara?

Oso desberdin. Gure garaiko jendeak beste egoera bat bizi izan du, ikusi genuelako gure gurasoek nolako esfortzua egin behar izan zuten euskaldunak izateko. Gazteek, nolabait esateko, oso erraza izan dute eskolara joatea, eta kanpotik digitalki iristen zaizkien edukiak erdaraz izan dira. Nik uste dut ez dutela benetan bizitzeko beraiei hizkuntza gisa, bazik eta eskola hizkuntza gisa.

Zer egingo zenuke Donostia euskaldunagoa izan dadin?

Ez dut alarmista izan nahi, baina gero eta gutxiago hitz egiten da euskaraz, nahiz eta gero eta jende gehiagok jakin. Guk gure errua dugu, gaztelaniaz egiten dugutenean gaztelaniara pasatzen garelako. Administrazioa eta komertzioetara joatean euskara behar bat dela erakutsiko nuke; euskaraz ez dakien pertsonari euskaraz dakien beste bat etortzeko eskatuta, edo euskara ulertzeko gai denari euskaraz hitz eginda. Behar hori sentitzeko ekintza txikiak egin behar ditugu, eta administrazioak ere askoz gehiago egin beharko luke.

E
N
B
A
T
A



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA
943424797 - 609314962
enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus



«Intxaur jaietan ikus daiteke gauzak antolatzeke orduan euskara presente dagoela»

MERTXE IÑIGO EGIZURAIN

Intxaurrondoko euskara batzordeko kidea

✎ Garazi Etxaniz Idarreta

Nola bizi duzue auzoan Euskararen Eguna?

Elkartea 1998an sortu zen, duela gutxi 25. urteurrena izan genuen eta esango nuke beti ospatu izan dugula. Euskararen Eguna euskara erdigunean jartzeko momentu bat da. Azkenean, aitzakia moduko bat da, Euskaraldiaren edo Korrikaren antzera. Aste osoan zehar hainbat ekitaldiren bitartez ospatzen dugu, Pirritx eta Porrotx etortzen dira, adibidez. Saiatzen gara beste elkarte batzuek ere ekitaldiak antola ditza-ten, ez soilik gure elkar- teak.

Zer botatzen duzu faltan Euskara-

ren Egunean? Zer gustatzen zaizu gehien?

Ez dut gustuko egun bakarra izatea, 365 egun izan beharrean. Ez genuke ospatu beharko, azken batean. Eta gehien gustatzen zaidana euskara erdigunean ikustea da; polita da, erreferentziatzko eguna da jendearentzat. Gure kasuan, gaztaina erreketak eta dantzak egiten ditugu, besteak beste, eta une goxoa izaten da. Hunkigarria da.

Zein egoeratan ikusten duzu euskara auzoan?

Auzoa ez da bereziki euskalduna, justu kontrakoa: Donostiako

erdaldunenetarikoa bat. Nahiz eta azken neurketetan erabilera datuak hobexeagoak izan, oraindik asko dago egiteko; momentu batzuetan nahiko etsigarria izan daiteke. Hala ere, auzo handia izanik, euskaldun asko bizi gara, eta gauzak ilusioz egiten dira. Donostia mailan antzera, nahiko etsigarria da, baina badaude gurea baino auzo euskaldunagoak, erabilera aldetik behintzat.

Auzoko belaunaldi gazteek eta helduek berdin bizi dute euskara?

Nik uste dut gazteek beste gaitasun eta borroka batzuk dituztela. Elkartera batu da jende gaztea, baina batez besteko adinak altua izaten jarraitzen du. Ez du esan nahi gazteek euskararekiko interesez ez dutenik, baina bai beste gauza batzuk lehenesten dituztela, etxebizitza edo ekologia, adibidez. Hala ere, badaude euskararekin sentsibilizatuta dauden gazteak, eta Intxaur jaietan ikus daiteke gauzak antolatzeke orduan euskara presente egoten dela.


Zer egingo zenuke Donostia euskaldunagoa izan dadin?

Askok hitz egiten da transmisioaren beharraz, batez ere gazteek eta haurrek erreferenteak eduki ditza-ten. Nire ustez, erreferente horiek gehiago landu behar ditugu, gehiago erabili; erreferente diren pertsonen bidea eman, telebistan, esaterako. Baina, batez ere, gazte eta haurren gune horiek saiatu euskalduntzen eta euskararen erabilera sustatzen, argi ikusi baitugu kezkatzen gaituen zerbait dela.

Irudikatu zure lekua munduan



SANTO TOMAS
LIZEOA



«Añorga arnasmune da Donostian, baina gabeziak ikusten ditugu erabileran»

EIDER INTXUSTA SERRANO

Añorgako euskara batzordeko kidea

📍 Garazi Etxaniz Idarreta

Nola bizi duzue auzoan Euskararen Eguna?

Saiatzen gara egunari garrantzia ematen eta gutxieneko lanketa bat egiten. Batzuetan, ikastolekin elkarlanean jarduerak antolatzen ditugu; besteetan, asteburura eramaten dugu ospakizuna eta zerbait antolatzen dugu auzoan. Aurten *Ztandap* antzerki saioa eta logo lehiaketa bat antolatu ditugu. Azken hori aspalditik genuen buruan, euskara batzordeak logo bat behar zuelako; irabazlea egunean bertan iragarriko dugu, eta, gero, logoarekin pankarta finkoa jartzea da asmoa.

Zer botatzen duzu faltan Euska-

raren Egunean? Zer gustatzen zaizu gehien?

Egunean bertan baino, urteko gainerako egunetan botatzen dut faltan borondate politiko handiagoa gure hizkuntza babesteko. Auzoan, jendearen inplikazioa eta babesa egoten da, baina beti egin daiteke gehiago. Eta gehien gustatzen zaidana da belaunaldi desberdinak elkartzen garela: helduak, haurrak eta gazteak. Giro polita sortzen da.

Zein egoeratan ikusten duzu euskara auzoan?

Añorga arnasmune da Donostian, baina nahiz eta euskara ezagutza oso altua izan, ga-

beziak ikusten ditugu erabileran: ikastolako irteeretan, futbol entrenamenduetan edo tabernan gero eta gehiago entzuten da gaztelania. Era berean, Añorga Arigune egitasmoan lanean gabiltza (Gipuzkoa Arigune proiektu pilotuaren baitan), eta udala, aldundia, Bagera elkarte eta beste eragile batzuk elkarlanean ari gara. Antolakuntza foroa dugu eta auzoko eragileak interpelatzen ditugu parte har dezaten.

Auzoko belaunaldi gazteek eta helduek berdin bizi dute euskara?

Nik uste dut euskararen ezagutza handiagoa dela gazteen artean, baina ez dute hizkuntzarekiko lotura emozional bera. Heldu askok euskararekiko zuten maitasun hori transmititu ziguten, nahiz eta hitz egiten ez jakin. Gazteek, berriz, agian ez dute hizkuntza arriskuan ikusten eta, ondorioz, ez diote garrantzi bera ematen.

Zer egingo zenuke Donostia euskaldunagoa izan dadin?

Donostiako agintea izango banu, euskararen aldeko apustu garbia egingo nuke politikoki. Saia-tuko nintzateke euskara txoko guztietara iritsarazten, hizkuntza ikasteko esfortzua egiten duten guztiei aukera ematen. Hizkuntzaren garrantzia transmititzea ere funtsezkoa iruditzen zait, arriskuan egon daiteken hizkuntza delako. Formula magikorik ez dago, baina apustua egin behar da euskararen alde.



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

Egunez egun, euskara lagun



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus



«Ez dugu tekla zuzena sakatzen, mezua ez da iristen»

GURUTZE GARAY CORDERO

Martuteneko euskara batzordeko kidea

📍 Garazi Etxaniz Idarreta

Nola bizi duzue auzoan Euskararen Eguna?

Duela bi urte euskara batzordea ia jenderik gabe zegoen, eta deialdia egin zen taldea berreskuratzeko. Justu Euskararen Eguna zetorrenez, horri ekin genion. Ideia berritzaileak sortu ziren, eta, besteak beste, lehenengo aldiz bideoklip lehiaketa antolatu genuen auzoan, haurren partaidetza areagotuta. Urtean zehar gauzak egin izan ditugu: Mintza-potea ostiraletan, Korrika, Euskaraldia... Pixkanaka, berreskuratu ditugu gogoak jarduera desberdinak antolatzeke.

Zer botatzen duzu faltan Euskararen

ren Egunean? Zer gustatzen zaizu gehien?

Euskararen Eguna egun arraro batean izaten da beti. Aurten, asteazkena izango da, eta astean zehar eskolan errazagoa bada ere, jarduerak ez ditugu guk bakarrik egiten. Haurtxokoarekin eta gaztelekuarekin adostu behar izaten dugu, ekintza desberdinak hainbat egunetan antolatzeke. Aurten larunbatetik larunbatera egingo dugu.

Zein egoeratan ikusten duzu euskara auzoan?

Egoera kaxkarra da, euskararen erabilera oso gutxitua dago momentu honetan. Iruditzen zait eskolatik atera eta ez dudala

haurrik entzuten euskaraz. Auzoan ere oso lokal gutxi daude arreta euskaraz egiteko gai direnak, pare bat taberna, auzoko supermerkatua eta harategia. Ari gara gauzak egiten eta indarra jartzen bultzadatzoxa emateko, batez ere, haurrengan. Helduek euskara ikas dezaten ere egin dira gauzak: auzo eta guraso elkarteak gurasoentzako ikastaroak sustatu zituzten AEKren eskutik.

Auzoko belaunaldi gazteek eta helduek berdin bizi dute euskara?

Gazteek oso desberdin bizitzen dutela esango nuke. Gure belau-naldikoak haurrak ginenean, ikusten genuen nola bizi zuten gurasoek euskararen premia hori; behar moduan ikusten genuen euskara, Euskal Herrian bizi nahi bagenuen. Gaur egun ez da horrela bizitzen, eta uste dut behar izate horretara bueltatu behar garela. Nire alabei helarazten diedan mezua hori da.

Zer egingo zenuke Donostia euskaldunagoa izan dadin?

Egoera oso desberdina da lekuaren arabera. Zaldibian kanpotar asko dago, baina euskara erabiltzen da komunikatzeko, euskarak garrantzia du, eta pertsona berriek jakiteko behar hori izango dute. Donostian ez dago euskararen behar hori, edozein lekutan lehen hitza gaztelaniaz egiten baita, eta bere garaian funtzionatzen zuenak jada ez du funtzionatzen. Horrek ez du esan nahi lanik egiten ez dugunik, baina ez dugu tekla zuzena sakatzen, mezua ez da iristen.



Gabriel Aresti, 165, 20015 Donostia – 943-89 95 16 – 012958aa@hezkuntza.net



Baserri giroa komiki bihurtu

Eneko Izutueta Azurmendi (Donostia, 1981) ogibidez irakaslea bada ere, 'Kontua eta Zikina' lehenengo komikia argitaratu berri du. XX. mendeko baserri giroaren errealitatea komikirako idatzi du, eta bere anaia Ibai Izutueta Azurmendirekin eta Aritz Vieites Ezeizabarrena marrazkilariarekin batera egin du lan.

📷 Gorka Correyero Llamas

Donostian jaio zen arren, baserri giroa oso presente du Eneko Izutuetak. Sei urte pasatu ditu *Kontua eta Zikina* komikia idazteko helburuarekin. Proiektuak *Herri Txiki Infernu Handi* saioan du oinarria, Beizaman grabatutako saioan, hain zuzen ere. Agustín Linazasoro beizamarrak bere amona zenaren istorioa kontatu zuen, eta Izutuetatarrak hasieratik harrituta geratu ziren. Egituraren aldetik, baserri giroko narrazio bikaina da eta Azurmendi anaiek narrazio hura komiki bilakatu



Geuria
MERKATUA

erosi euskaraz!



MAHALA IZOZKIAK



GEURIA SUKALDEA



EUSKAL ELIKAGAIK



Boulevard 4, DONOSTIA (Sarriegi plazatik badu sarrera) T. 943 062 694



«Iruñeko aurkezpenaren ondoren, amarekin hitz egin nuen eta 'Kontua eta Zikina' amonaren esamoldea zela argitu zidan»

dute. «Nire anaiak hasieran ikus-entzunezko bat egin nahi zuen, baina aurrekontua dela eta, zaila zen», azaldu du Iztuetak. Film bat egitea zaila denez, komikiaren aldeko apustua egin dute.

Helburu argia da: istorioa idaztea. Hortaz, komikiaren munda ezagutzeko ahaleginak egin zituzten, eta gehiegi jakin gabe, komikia sortzeko prozesua hasi zuten. «Gu toreutzen jakin gabe plaza batean sartu gara, eta ahal izan duguna egin dugu». Iztuetaren lehenengo lana den arren, bere anaiak badu esperientzia, idazlea baita. Harengatik heldu dela argi du Enekok, eta prozesua ikasteko baliogarria izan dela gehitu du.

Istorioaren narratibak bidea erraztu die. Baserri giroa txikitatik oso presente eduki dute. Ezaguna zaie. «Etxez etxe heldu zaigun istorioa da», nabarmendu du. Horretarako, 1929. urtera atzera egin behar du irakurleak, orduko Euskal Herriko baserri girora. *Kontua eta Zikina*-ren istorioak neska-meen bizipenak islatzen ditu, bildu duten istorioa etxeko bihurtu dute. «Euskal Herriko baserritar


askori ez zaie arrotza egingo». Omenaldia egiteko aukera bikaina eduki dute.

Omenaldia biribiltzeko aukera izan dute izenburuarekin. «Iruñeko aurkezpenaren ondoren, amarekin hitz egin nuen eta *Kontua eta Zikina* amonaren esamoldea zela argitu zidan», azaldu du. Azurmendik Wazemank saioan entzun zuen esamolde bat zen, baserrietan asko erabilitakoa. Proiektua argitaratu ostean, «erabat asebeteta eta oso pozik» dagoela dio.

Marrazkien indarra

1960ko hamarkadako baserri mundua diseinatzeko, dokumentazio lana ezinbestekoa izan da. Iztueta Azurmendi anaiek istorioaren kontakizuna egin dute. «Nire anaiak gidoia egin du, eta nik hori kontuan hartuta, *story-board* bat egin dut». Komikiak bi osagai behar ditu: hitzak eta marrazkiak. Istorioa ilustratzeko, Aritz Vieites marrazkilariren laguntza izan dute.

Iztuetak diseinatu duen



MariaReinaEskola

Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.

Urte osoan ezagutzeko aukera, zure banakako bisita eskatu.

Ametzagana 58 • Egia • 20012 • Donostia
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com





**«Neskameen arteko
elkarrizketak Euskal
Herria gris eta borrokalari
horretan kokatzen dira»**

istorioa marrazki bihurtu du. «Testuingurua eta kokapenak nik egin ditut argazkiak jarriz, gero marrazkilariak argazki horiek marrazki bihurtu ditu». Bestalde, azaldu egileak azaldu du Arkaitz Zubirik proiektuaren hastapenetan lan handia egin

zuela, besteak beste, pertsonaien diseinuaz arduratuz.

Donostiako erreferentziak ere azaltzen dira istorioan zehar, besteak beste, modernizazioa azaltzeko Tabakalera aipatzen baitute. Era berean, Euskal Herriko langile borroka azaltzean, Egia auzoa presente dago.

Gaur egungo Donostia ez da 1960ko hamarkadako bera. Horrek ere asko lagundu du, marrazkiak diseinatzeko garaian erreferentzia izan dezaten. Komikian azaltzen den beste erreferentzietako bat Donostiak izan zuen euskararen lehenengo loraldia da. «Trantsizio

grisa izan zen, neskameen arteko elkarrizketak Euskal Herria gris eta borrokalari horretan kokatzen dira», argitu du. Egungo gizartearen egoera oso bestelakoa da.

Donostian euskaraz bizi

Iztueta jaiotzez donostiarra da, eta Donostia zalea ere bada, horregatik aukeratu zuen Donostia komikiko istorioa kokatzeko. Hala ere, «eroso eta pozik» bizi den arren, kezka du gaur egun euskarak duen egoeragatik. Gizarteak euskalduna baztertzen duela uste du; «mamu espainiarr» oso indartsua denez, euskaldunok gaztelaniaren menpe gaudela dio.

Donostiako diagnostikoa tris-tea da, Iztuetaren hitzetan, euskaldunak eta abertzaleak sentitzen diren askok ez dutelako hizkuntzaren aldeko aurrera-pausorik ematen. Askok euskara eskolako irakasgai gisa ikusten dutela uste du, eta hori okerreko diskurtsoa dela. Iztuetaren ustez, «euskal curriculum» behar da, euskarari eta euskal kulturari oinarrituta dagoena. Gaineratu duenez, egoera honek irtenbide bat behar du.

Indibidualismoa nabarmentzen ari den honetan, euskara tokia galtzen ari dela argi dauka autoreak. Saiakerak egin, egin dira. Hala ere, praktikan dago gakoa: «Hizkuntza bat hitz eginez baino ez da existitzen, ezin dugu esan euskaldunak garenik hitz egiten ez baldin badugu», dio Iztuetak.



Aitor Ikastolan,
EUSKARAZ BIZIZ!



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - 'D'eredua Konkorronea, 7 - Ametzagaña, 40 - Tel.: 943-89 94 14
012358aa@hezkuntza.net - www.aitorikastola.hezkuntza.net

Euskarak bultzada behar du, eta horren kexu da Iztueta: «Baliabide eta erreferente gehiago behar ditugu»

Diskurtsoez gain, beste zerbait behar delako ustea du Iztuetak. Mugitu nahi ez duen harri bati tiraka gaudela dio, eta, honekin batera, Euskararen Egunaren oso zalea ez dela dio. «Euskara arlo guztietan eta urteko egun guztietan bultzatu behar dugu, egunean euskal musika lau aldiz jartzeak ez du ezertarako balio». Hizkuntzaren aldeko giroa sortzea ezinbestekoa da hizkuntzaren biziraupenerako.

Euskal kulturaren susperraldia

Azken urteotan, euskara hutsean lan ugari eta onak argitaratu

dituzte idazle askok, eta hori gutxi balitz, beste hizkuntzetan arrakasta handia izan duten liburu ugari euskaratu dira. Giro hori Durangoko Azokan ikus daitekeela uste du Iztuetak: «Euskaldunon kontzientzia ukitzen den aldiro, erreakzio bat dago».

Ordea, herritar asko Durangora bertaratuko dira, baina gero zer? Euskarak bultzada behar du, eta horren kexu da Iztueta: «Baliabide eta erreferente gehiago behar ditugu», nabarmendu du.

Komikia idazteko erreferenteak ezinbestekoak izan zaizkio, horiek bidea ireki baitiote. Izan ere, komikigintza azken zazpi urteotan ikaragarri hazi dela nabarmendu du: «Diru injekzioari eta bekei esker, ilustratzaile berrien proiektuak nabarmendu dira». Iztueta hasiberria denez, ez daki zehazki *Kontua eta Zikina* komikiak


izan duen harrera zenbakietan kalkulatzeko. Hala ere, oso pozik dago Iruñean egindako aurkezpena eta datozen egunetan egingo diren aurkezpenengatik. Proiektua hiru pertsonen artean idatzia dagoenez, aurkezpenak kudeatzeko lana banatu dute. «Donostialdean egingo diren aurkezpenen ardura nirea da, Marruman eta Hernaniko Komiki Azokan aurkeztuko dugu, eta Antiguian aurkeztea ere asko gustatuko litzaidake», azaldu du, pozik.

Agustin Linazasoro beizamarrekin hitz egin dute, baita ere: «Beizaman liburua aurkezteak ilusio handia egingo liguke». Aurretik aipatutako Durangoko Azokan ere aurkezpena egingo dute, eta bertara Iztueta anaiak eta Vieites marrazkilaria joango dira. Euskal Herriko nortasuna gal ez dadin, halako proiektuek bultzada behar dute. ●

10 URTE. NAHI BESTE TABAKALERA



2
0
1
5



2
0
2
5

tabakalera.eus

10 URTE. NAHI BESTE TABAKALERA

Euskararen Eguneko egitarauak



AIETE

Azaroak 28, ostirala

17:00etan, Euskararen Eguna auzoarekin ospatzen! haurtxoko eta gaztelekuan.

18:00etan

, IV. Aieteko Izarrak.

Haurren Talentu Lehiaketa, *Golazen*-eko Alaia, Izar eta Maitanek aurkeztua, Aieteko kultur etxean.

Azaroak 29, larunbata

17:00etan, Zinema haurrentzat: *Doraemon. Antartikako abentura handia*, Aieteko kultur etxean.

17:00etan, familiekin jolasean, haurtxokoan.

19:00etan, Magia poteoa, Asier Kidam magoarekin, Miralles, Etxadi eta Munto tabernetan.

21:00etan, Bertso afaria, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallusekin, ACD elkartean.

Abenduak 3, asteazkena

17:30ean, solas eta jolas, haurtxokoan.


19:00etan, Mugan taldeak Aieteko euskara batzordearen 10. urteurrenean emandako kontzertuaren proiektzioa, Katxola baserrian.



LAIA
ABOKATUAK

Aurrera euskara !

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia



Delta EUSKARAZ BIZI!
papeleria

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 19:30
Larunbata: 10:30 - 13:30
Andrestegi, 2 beheko - ANTIGUA - Donostia
deltapapeleriassdonosti 943-22 38 98 - 663875255 deltapapeleriass@gmail.com



GUK EUSKARAZ, ZUK?

HERRI AMETSA
IKASTOLA
www.herriametsa.eus
DONOSTIA 943 39 35 20

ALTZA**Azaroak 26, asteazkena****10:30-11:30**, Mintzodromoa, Larratxo Kultur Etxean.**Azaroak 28, ostirala****19:00etan**, Kantujira Herreran zehar, Herrera Kantuzen eskutik.**21:00etan**, euskal musika Bizargorri tabernan.**Azaroak 29, larunbata****09:00etan**, pala partidak Herrerako frontoian.**12:00etan**, irakurketa publikoa: *Detaile Xume Bat* (Adania Shibli), San Martzial plazan.**12:00etan**, egurrezko jokoak haur eta helduentzat, Herrerako plazan.**12:30ean**, Dantza poteoa Herreran

zehar: mutxiko ibiltaria, Herrera Kantuzen laguntzarekin.

14:30ean, herri bazkaria Herrera Kirol Elkartean.**15:30ean**, puzgarriak haurrentzat, Herrerako plazan.**19:30ean**, kontzertua Nido tabernan.**22:00etan**, Luma Urdin DJ-a Nido tabernan.**Abenduak 3, asteazkena****19:00ean**, Koldo Izagirrenen hitzaldia eta ardo dastaketa poetikoa, Herrera Kirol Elkartean.**AMARA****Azaroak 28, ostirala****17:00-19:00**, *Euskaraz Bizi* muralaren margotzea Amarako frontoian.**19:00etan**, Kantu-poteoa

Amarako kaleetan zehar, Easo plazan hasita.

Abenduak 3, asteazkena**15:00etan**, Amara Berri ikastetxeko Euskararen Eguna Easo plazan.**17:00etan**, txokolate jana eta diskofesta Easo plazan.**AMARA BERRI****Azaroak 22, larunbata****14:00etan**, bertso bazkaria Andoni Egaña, Eñaut Martikorena eta Libe Goenaga bertsolariekin, Ikasbide Kultur Elkartean.**Azaroak 27, osteguna****10:00-11:00**, Mintzodromoa euskara ikasle zein auzotarrentzat, Arcco merkataritza guneko azken solairuan.

Bihur zaitez AHOBIZI HITZEZ Euskaltegian

**GROS-en**
ikas ezazuKolon pasealekua, 5 behea
GROS - 20002 DONOSTIA

943-27 81 55



hitzez@hitzez.eus



www.hitzez.eus



19:00etan, hitzaldia: *Palestinaren historia eta gaur egungo egoera*, Palestinarekin elkartasun plataformaren eskutik, Ikasbide Kultur Elkartearen. Bukaeran, mokadutxo bat eskainiko da.

Azaroak 28, ostirala

16:00etan, buruhandiak, erraldioiak, musika, umeen margoen erakusketa eta jolasak, haurtxokoaren eta gaztelekuaren eskutik. Amara Berri ikastetxeko Olaeta eraikineko patioan elkartu eta handik abiatuko dira Etxeberritarren plazara. Bertan izango dira jaialdia eta txokolate jana.

19:00etan, informazio saioa: *Euskarren kontrako oldarraldi judiziala*, Ilunki Kultur Elkartearen, Bageraren eta Ikamaren eskutik.

21:00etan, Euskaraokea Ilunki Kultur Elkartearen.

Abenduak 1, astelehena

19:00etan, euskal literaturaz goza: *Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi*, Ikasbide Kultur Elkartearen. Pako Aristi liburuaren egilea bertan izango da.

Abenduak 3, asteazkena

17:30ean, Argitxoren jolasa HH5-LH5 arteko haurrentzat, haurtxokoan.

18:00etan, hitz-pasa jolasa LH6ko eta hortik gorako gaztetxoentzat, gaztelekuan.

19:00etan, kantujira Ikasbide Kultur Elkartetik abiatuta, Amara Kantuzen eskutik.

ANTIGUA

Azaroak 26, asteazkena

17:00etan, *mihi-bizi* eta *aho-bero* lehiaketa 6-9 urteko haurrentzat, Jakintza ikastolan.

Azaroak 27, osteguna

19:00etan, *Rifqa: honengatik egiten dugu dantza* poesia musikatua Lugaritz Kultur Etxean.


Azaroak 28, ostirala

18:00etan, ipuinaren ordua 3-5 urteko haurrentzat, Lugaritz Kultur Etxean.

19:30ean, Donostia Bertsotan: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze, Lugaritz Kultur Etxean. Gai jartzailea: Iker Iriarte.Sarrera 5€.

Azaroak 29, larunbata

11:00etan, plaza dantzak elizako plazan, Antiguotarrak dantza taldearen eskutik.



GORA EUSKARA!

CACTUS

TABERNA

943-05 41 67

PLAZA BERRI · EGIA

www.eskulanenetxea.com

Eskulanen Etxea

EUSKARAZ BIZI

Sarriegi plaza, 10 - 20003 Donostia - Tel.: 943-43 65 71



IPURU S. L.

ERAIKUNTZAK

Gora euskara!

Mundaiz bidea, 10

2. solairua - 24. bulegoa

Tel.: 943-42 41 21

20012 DONOSTIA

www.ipuru.com

16:00etan, Euskara Bihotzean txapa tailerra 7-11 urtekoentzat, haurtxokoa.

18:30etan, Euskaraokea 12-17 urtekoentzat, haurtxokoa.

Azaroak 30, igandea
10:00etan, txistularien diana, auzotik.

11:30etan, erraldioak eta buruhandiak elizako atarian.

12:00etan, kantujira Txalupagillenen.

13:00etan, oldarraldiari aurre egiteko agerraldia eta argazkia, Bentaberri plazan.

Abenduak 2, asteartea
17:00etan, hitzaldia Jakintza ikastolan: *Gure haurrak gero eta gutxiago ari dira euskaraz, edo gure inpresioa da? Datuak eta estrategiak.*
Hizlaria: Xan Aire (Plazara taldea).

17:30etan, *Erlauntza* filmaren proiektzioa Lugaritz Kultur Etxean.

Abenduak 3, asteazkena
Egun osoan zehar, Jakinguraren eskutik, *Euskara babes dezagun gure koloreekin* mural tailerra, Jakintza ikastolaren kanpoko horman.

18:30etan, solasaldia Antiguotarrak elkarteak: *Mundua aurka dator, baina guk euskara dugu munduaren alde.* Bagera eta EHerek.

Abenduak 4, osteguna
19:00etan, inprobisazio antzerki saioa Supituki taldearekin, Lugaritz Kultur Etxean.

Abenduak 5, ostirala
19:30etan, kontzertua: Julie - *Eklore*.

AÑORGA

Azaroak 28, ostirala
20:00etan, *Ztandap* Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairekin, Añorgako antzokian.

EGIA

Azaroak 26, asteazkena
19:00etan, literatur solasaldia: *Uztapide eta Xalbador, bi adiskide mugaz gaindi* (2024 Pako Aristi). Egia Kultur Etxean.

Azaroak 28, ostirala
18:00etan, *Hitz-jarioa* mahai jolasa, gaztelekuan.

Abenduak 1, astelehena
19:00etan, plaza dantzak Trebeska dantza taldearekin, Plaza Haundin.

Abenduak 3, asteazkena
17:30etan, *Kaleidos* mahai jolasa, haurtxokoa.

18:00etan, bingo musikatua, gaztelekuan.


Abenduak 6, larunbata
12:00etan, kantujira Katatik abiatuta.

Abenduak 3. Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken ere zu zeu izan. Bizi euskaraz.

Kutxabankeko harremanetarako aukeratu euskara.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.

Kutxabanken Hizkuntza Politika
ikusi hemen: www.kutxabank.eus



Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

GROS

Azaroak 28, ostirala
21:00etan, bertso afaria Suhazi jatetxean, Irrintzi AEK Euskaltegia antolatuta.

Azaroak 29, larunbata
16:15ean, Zuhazti-Manteo taldearen dantza emanaldia, Katalunia plazan.

17:00etan, euskararen aldeko murala, haurrentzat eta gazteentzat, Katalunia plazan.

17:00etan, zapi tailerra 5-11 urte arteko haurrentzat, Katalunia plazan.

17:00etan, bingo musikatua 5-11 urte arteko haurrentzat, Katalunia plazan.

19:00etan, buruhandiak eta erraldoiak, Hondarpe auzo elkartetik (Nafarroa Beherea plaza) abiatuta.

Abenduak 3, asteazkena
19:00etan, bertso saioa Koba Hostelean: Peru Aiarza, Ixone Asategi eta Aritz Katarain. Gai jartzaileak: Zurriola ikastolako Bertso Eskolako LHko ikasleak.



Abenduak 4, osteguna
18:30ean, euskararen aldeko triki poteoa Hondarpe auzo elkartetik (Nafarroa Beherea plaza) abiatuta.

INTXAURRONDO

Azaroak 22, larunbata
17:00 eta 19:00etan, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren ikuskin Intxaurren Kultur Etxean: *Zerua lapurtu dute*.

Azaroak 28, ostirala
17:00etan, jolasak haur eta gazteentzat Bernart Etxepare plazan, haurtxokoak eta gaztelekuak antolatuta.

18:30ean, gaztaina erreketak Bernart Etxepare plazan.

19:00etan, plaza dantzak Bernart Etxepare plazan.

Azaroak 29, larunbata
14:30ean, bertso bazkaria Zulo Zahar elkartean. Txartelak bertan aurrez salgai.

Abenduak 3, asteazkena
19:00etan, dokumentala Intxaurren Kultur Etxean: *Lurdes Iriondo, ez gara alferrik pasako*. Ondoren, Intxaurren Kantuz taldearekin batera, Lurdesen hainbat kanta abestuko ditugu.

LOIOLA

Azaroak 22, larunbata
12:00etan, kalejira trikitilariarekin auzoan zehar.

Euskaraz bizi!

FISIOIRATXE

OSASUNEAN INBERTITU!

• TERAPIA MANUALA • TERAPIA LINFATIKO INTEGRALA

Juan XXIII.aren pasealekua, 6, 20016 Donostia · Tel.: 696-92 4154

PLATERO

taberna

Aurrera euskara!



Urrats euskaltegia

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia

Azaroak 23, igandea

13:30ean, bertso saioa Amets Arzallus eta Jon Maiarekin, Eliza kalean. Jarraian, bertso bazkaria Hontza elkartearen.

Azaroak 29, larunbata

18:30ean, kalejira Ribers Rockers elektrotzarangarekin, Eliza kaletik abiatuta.

MARTUTENE**Azaroak 29, larunbata**

12:00-14:00, mintza-poteoa, bermut edizioa, auzoan zehar.

14:00-15:30, Osto DJ-a Ander Arzelus Luzear plazan. Ogitarateko eta talo postua, guraso elkartearen eskutik.

15:30-17:30, tailerrak Ander Arzelus Luzear plazan: taloaren txokoa, txalapartaren txokoa, raparen txokoa eta Hitz eta pitz mahai jokoen txokoa.



17:30ean, bideoklip lehiaketaren II. edizioa Etxarriene auzo etxean.

18:00etan, hamaika jolasen arratsaldea gaztelekuan, LH6-ko eta hortik gorako haurrentzat.

Abenduak 3, asteazkena

16:30ean, goazen denak *Gure Lema* kantatu eta dantzatzera euskararen alde, eskolako patio txikian.

17:30ean, *Nor da nor?* jolasa haur-txokoan, HH5-LH5 arteko haurrentzat.

18:00etan, euskal mitologiari buruzko Gabonetako postalak LH6-ko eta hortik gorako haurrentzat, gaztelekuan.

18:00etan, antzerkia haurrentzat Etxarriene auzo etxean: *Enperadorearen Kondaira*, Patata Tropikala taldearen eskutik.

PARTE ZAHARRA**Azaroak 27, osteguna**

18:30ean, lango magoa Guardetxean.

DONOSTIAN

Euskararen Eguna

2025

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Euskara

egitaraua



20:30-22:00, *Antxuak Balia* ikuskizuna auzoko kaleetan zehar.

Azaroak 28, ostirala

18:00etan, herri kirol desafioa Trinitate plazan.

21:00etan, Aberdi eta Erkizi erromeria Trinitate plazan.

Azaroak 29, larunbata

12:00etan, mahai ingurua Guardetxean: *Gaztetxeak, okupazioa...*

12:00etan, kantujira Parte Zaharreko kaleetan zehar, udaleko txistulariek lagunduta.

14:00etan, gazte bazkaria Arrano Beltza Euskal Tokian.

17:00etan, elektrotxaranga Ikatz kaletik abiatuta Parte Zaharreko kaleetan zehar.

18:00etan, erromeria Plaza Berrian, udaleko txistulari taldeak euskal dantza tradizionalen inguruan eratutakoa.

19:00etan, euskararen aldeko argazkia Trinitate plazan.

19:30ean, kontzertuak Guardetxean.

Azaroak 30, igandea

09:00etan, *Argi Soinua*, Euskararen inguruko doinuak, udaleko txistulari taldearen eskutik, abeslariak eta dantzariak lagunduta, Parte Zaharreko eta erdiguneko kaleetan zehar.

12:15ean, euskararen inguruko kantuak, udaleko txistulari taldearen eskutik, Plaza Berrian.

17:00etan, ipuin kontalaria eta txokolate jana haurrentzat Lur Kortaren eskutik, Kresala elkartearen.

18:00etan, bertso saioa Plaza Berriko arkupeetan: Aitor Mendiluze, Nerea Elustondo, Miren Artetxe eta Andoitz Urdapilleta. Gai jartzailea: Peru Aiarza.

Abenduak 3, asteazkena
17:30ean, *Zer da zuretzat euskara?* haurtxokoan, HH5 eta LH6 arteko haurrentzat.

18:00etan, mutxikoak Plaza Berrian.

TXOMIÑENEA

Abendiak 3, asteazkena
18:00etan, *Euskara alarma gorrian* elkarretaratzea, Txomiñeneko biribilgunean.

IRAKASLEEN EUSKARAZKO
PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

Larratxo pasealekua, 51-53 | DONOSTIA
Tel.: 943-40 46 10 | 012233aa@hezkuntza.net

taberna Sjatetxea

Matia Kalea 35, Antigua
www.trikuharrijatetxea.com

EKiNTZA
ikastola
Aurrera euskara!

Tontorgoxo, 18 - 943-21 03 07 - 943-31 69 77 - Faxe: 943-21 96 83 - ikastola@ekintza.eus - www.ekintza.eus




Euskara eta kirola beti lagun



Donostia
Kir**la**



sarea *euskaraz* josten dugu



bagera

www.bagera.eus